

Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

Anarkia eta basektomia Donostian


GRAZ, AUSTRIA, 1928. Hermann Knaus doktoreak (1892-1970) Kyusaku Ogino ginekologo japoniarrak lau urte lehenago aurkitutako metodo antisorgailu naturala perfektionatu zuen, Grazeko Unibertsitateko ospitalean burututako ikerketen ondorioz. Metodoa japoniarraren izenez ezagunagoa bada ere, Ogino-Knaus edo Knaus-Ogino metodoa ere esaten zaio, austriarraren ekarpenaren omenez. Metodoa hilekoaren zikloaren egunak kontatzean datza, egun emankorrrak zein diren jakin eta haurdunaldia saihesteko; modurik zorrotzean jarraituta ere, metodoak gehienez %80ko fidagarritasuna baino ez du.

Fidagarritasun altuagoaren bila-edo, Knaus basektomia metodoa aurkeztu zuen 1934an. Baina ez zuen hura garatzeko aukerarik izan, anarkista izanik, Hitlerrek hauteskundeak irabazita, nazien jazarpena hasi baitzen.

Jaioterririk ihesi, Knaus Donostiara iritsi zen, eta bertako anarkistek CNT sindikatuko egoitzaren atea zabaldu zizkioten. 1935eko apirilean zabaldu zituen atea CNTko Donostiako egoitza berriak, Larramendi kaleko 11.ean. Bertan zegoen, besteak beste *Crisol* astekari anarkistaren erredakzioa. Eta eba-kuntza-gela ere egokitu zuten egoitzako mahai baten gainean: Hermann Knaus basektomiak egiten hasi zen.

ZERUKO ARGIAKO 1979ko otsailaren 11ko zenbakian, gorabehera horiek guztiak kontatu zizkien

Manuel Chiapuso CNTko kideak Txema Larrea eta Elixabete Garmendiari: “Donostian guk egiten genituen gauzak kontatzen ditudanean, jendea, frantzesek esaten duten bezala, ‘baba’ geratzen da, aho zabalik. Gu berrogeita hamar urte aurreratuak geunden gauza askotan. Ez bakarrik ekologian baizik adibidez sesual mailan. Guk, sindikatoetako mahaietan, basektomia egin diegu seme-alaba asko zuten eta gehiago nahi ez zuten gurasoei. Eta ez ditu edonork egin ez basektomia hoiek, Knaus doktoreak berberak –Ogino-Knaus metodoa– egiten zituen. Nazietatik ihes egin behar izan zuen eta hemen, Donostian, lan hori egiten ihardun zuen. CNTko bos-



Goiko argazkian, nazien kontzentrazioa Nurembergen, 1934an; Knaus, anarkista izanik jaioterra utzi zuen nazien jazarpenetik ihesi. Behean, CNTko afixa; Knaus Donostiako CNTren egoitzan jardun zuen basektomiak egiten.

tahun bikote egon ziren orduan sistema hori hartu zutenak zer ondorio izaten zituen jakiteko, oraindik ez baitzekiten zientifikoki edo estadistikoki; bederatzi hilabete ondoren 496k positibo eman zuten eta 4ek negatibo, ikusten denez gehiegi emozionatu ziren lau bikote hoiek”. Aurrerago Uliako hondartza “salba-jeetan” nudismoa egiten zutela ere kontatzen du Chipausok.

Baina garrantzitsua zera da, ordura arte ez zela basektomiaren halako probarik inoiz egin. Munduan lehena izan zen Hermann Knaus burututako esperientzia –eta Isaac Puente mediku anarkistak emaitzekin egindako azterketa estatistikoa–. %99etik gorako fidagarritasuna lortu zuten. ■

ARRASTOAK

BRITAINIA HANDIKO gazteek ezer gutxi dakite beren herrialdeko historiari buruz. Hala ere diote behintzat bertako telebista kate batek 3.000 gazteri galdetuz egin berri duen inkestaren emaitza kaxkarrek. 20 urtera arteko britainiarren %58k uste du Sherlock Holmes fikziozko pertsonaia ezaguna –batzuentzat behinik behin– benetan existitu zela. Rikardo Lehoi Bihotz Ingalaterrako errege izan zen 1189tik 1199ra; bada, %47k mitoa besterik ez dela uste dute. Baina harrigarriena, beharbada, Winston Churchill lehen ministroarena da: %23rentzat fikziozko pertsonaia da. Sherlock Holmesek argizteko moduko kasua, zinez.



Winston Churchill (goian) ez zen benetan existitu gazte ingelesten laurden baten ustez. Sherlock Holmes (behean), aldiz, pertsona erreala izan zela uste dute gehienek.